


Prensa oharra

Nota de prensa



20/21 Hondartzetako denboraldia

HONDARTZAINEK KONTXAKO EDUKIERA SOILIK KONTROLATUKO DUTE

Donostiako hondartzak prest daude udako denboraldiari hasiera emateko. **Denboraldia ekainaren 15ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da**, uztaila eta abuztua hilabete nagusiak izanda.

Miguel Angel Diezek, Hiri Mantentze zinegotzi eta hondartzetako arduradunak, adierazi duenez, "nahiz eta pandemiaren datuak hobera joan diren txertoa hartu duten herritarren ehunekoak gora egin duelako, erne ibili behar dugu, eta, beraz, aurreko denboraldian ezarri ziren neurri batzuk mantendu".

"Hondartzainak" sarbideetan egongo dira, baina aurten Kontxako hondartzan soilik. "Itsasaldien eraginez espazio eta distantzia sozialari dagokionez arazo gehien sor ditzakeen hondartza da, itsasgoretan bereziki. Hori dela eta, itsasgora baino bi ordu lehenago eta bi ordu geroago arte, sarrera mugatua izango da Kontxako edukieraren arabera. Udaltzaingoek behar izanez gero, 'hondartzainak' arduratuko dira sarbideak kontrolatzeaz", adierazi du Diezek.

Prensa oharra

Nota de prensa



Kontxako hondartzan hiru sarrera egongo dira: Cervantes Plazaren ondoko arrapala, erlojuen arrapalak eta Eguzki ondoko eskailerak.

Edukierak Udalaren webgunearen eta Foru Aldundiaren web-aplikazioaren bidez ezagutu ahal izango dira Igeldon eta Urgullen jarritako bideometria kamerek ematen dituzten datuei esker. Honakoa aukera ona izango da hondartza bat ala beste bat aukeratzeko orduan, jende-kopuruaren eta itsasgoren arabera.

Kontxako sarrera nagusietan banderatxoak egongo dira aurten ere, sarrera librea (bandera berdea) edo itsasgorengatik mugatua (bandera gorria) adieraziko dutenak. Seinaletika hori eta megafoniaren bidezko mezuak errespetatzea funtsezkoa da Donostiako hareatzez arazorik gabe gozatzeko.

Hondartzetan maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da ibaiertzeko pasealekuetan edo hareatzetan sartu eta irteterakoan. Eguzkia hartzean edo itsasoan bainatzean, ez da beharrezkoa izango maskara, baina bai gainerako erabiltzaileekiko segurtasun-distantzia mantentzea. Hondartzan ere kutsatzeak eman daitezke.

■ 22 SOROSLEK ZAINDUKO DITUZTE HONDARTZAK

Hondartzen zaintza eta sorospen zerbitzua ekainaren 15ean hasiko da eta irailaren 30era arte luzatuko da. Zerbitzuaren ordutegia 10:00etatik 20:00etara izango da, lehenengo egunetik ekainaren 15era arte. Egun horretatik denboraldia amaitu arte, sorospen-zerbitzua 10:30etik 19:30era arte eskainiko da.

29 dira zerbitzua osatzen duten pertsonak, horietatik hondartzak zaintzeaz arduratuko diren 22 sorosle, uhartea barne. Horietatik 7 Kontxan, 6 Ondarretan eta uhartean eta 9 Zurriolako hondartzan. Gainerakoak uretako motorren patroiak, hondartzako arduradunak eta koordinatzaile nagusi bat dira.

Horrez gain, urtero bezala, **Kontxako hondartzan bainu lagunduaren zerbitzua egongo da**, ekainaren 15etik abuztuaren 31ra, 11:00etatik 19:30era. Hiru aulki anfibio daude, eta erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuak izango dira, Covid-aren aurkako neurriak betez.

■ EZ DAGO TOLDORIK, BAINA BAI AULKIAK

Iaz bezala, **hiriko hondartzek ez dute azkenean toldorik, karparik edo eguzkitakorik izango**, pertsonen pilaketak saihesteko. Aurten, berriz, Kontxako hondartzan alokairuzko aulkiak itzuliko dira. **50 aulki** kabinetan hartu ahal izango dira 5 euroko fidantza jarritz.

Kabina kolektiboek euren zerbitzuak eskainiko dituzte hondartza denboraldian. Ekainean eta irailean 09:00etatik 20:00etara izango dira, uztaileko eta abuztuko hilabete trinkoetan berriz 09:00etatik 20:30etara izanik. Kontuan hartu beharreko datu bat: kabinetarako azken sarrera hauek itxi baino ordu erdi lehenago izango da.

Ez da denboraldiko bonorik egongo. Kabinen edukiera kontrolatzeko, sarrera egunero salduko da. Horrek sarbidea eta edukiera gehiago kontrolatzea ahalbidetuko du, nahi ez diren ilarak eta kontzentrazioak saihestuz.

Prentsa oharra

Nota de prensa

■ HONDARTZAK GARBITZEA

Hiru hondartzak egunero garbitzen dira, Santa Klara uhartea bezala. Gauean zehar, hondarra bahetzeko eragiketa bat egingo da, egunean zehar abandonatuta edo hondarrean ezkatututa geratu diren hondakinak kentzeko. Lan hori 10:00ak arte egingo da, makineriak hondartzen lehen erabiltzaileengan oztoporik ez sorrarazteko.

Ordu horretatik aurrera eskuzko garbiketak egingo dira. Langileek baheketak utzitako hondakinak kenduko dituzte, zakarrontziak hustuz eta desinfektatuz eta sarrerak eta Kontxako hegala erratzez garbituz. Era berean, flotatzaileak badiatik erretiratuko dira, bai goizean, bai arratsaldean.

Berrikuntza gisa, aurten hondartzen hondarrean paperontzi urdin batzuk egongo dira, papera edo kartoia birziklatzeko. Taberna eta kabinetan ere birziklatzeko paperontziak jarriko dira. Donostiako Udalaren *Zero Plastik* kanpainaren barruan, ur-botilatxo betegarriak salduko dira, itzultze-sistemarekin. Helburua hondakin plastikoaren sorrera murriztea da, kasu honetan, ur botilatxoena.

Garbiketa **22 langileek** egingo dute. Udako gutxieneko fase bat dago: ekainaren 1etik 14ra eta irailaren 16tik 30era. Bi aldi horien artean udako gehieneko fasea garatuko da, non garbiketa areagotu egingo den, hiriko hiru hondartzetara erabiltzaile asko etortzen direlako.

■ BESTE ZERBITZU BATZUK

Aipatutako zerbitzuez gain, hondartzek beste instalazio batzuk izango dituzte erabiltzaileen gozamenerako, hala nola dutxak, edateko uraren iturriak eta garbigailuak, unitate batzuk itxita izango dituztenak, segurtasun-distantzia bermatzeko. Aurten ere igerian ikasteko igerilekuak itzuliko dira Ondarretan eta Zurriolan.

- Kontxako hondartza: izozkien kioskoa eta taberna hegalean.
- Zurriola hondartza: TinTin Kluba (900 m²) eta taberna terrazarekin, volleyball kantzak (512 m²)
- Ondarretako hondartza: piragua-alokairua (30 m²), TinTin kluba (600 m²), kiosko-taberna terrazarekin.

Aurten, toldoen kasuan bezala, hondartzetan ere **ez da gabarroirik egongo**, ezin baita bermatu jende kopurua eta edukiera. Mugatutako eremuetan kirola egitea baimenduta egongo da. Iaz ez zen volleyball-a egiteko baimenik eman, baina aurten aire zabalean egiten den kirola ez da debekatuta egongo, baldin eta eremu egokietan egiten bada, betiere hondartzako gainerako erabiltzaileei enbarazu egiten ez bada.

Prentsa oharra

Nota de prensa



■ INGURUMEN-KALITATEKO HONDARTZAK

Donostiako hondartzek ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriak dituzte, 2001ean lortutakoa eta EMAS, 2003an lortutakoa eta berrikusi eta ikuskatzen direnak urtero.

Ziurtagiri horiek hareatzean garatzen diren jarduera eta zerbitzu guztiak (garbiketa-zerbitzua, kabinetako arreta, sorospena, etab.) ingurumen-inpaktu txikiena bermatzen duten prozeduren bidez egiten direla erakusten dute. Horrela, urtez urte ingurumen-arloko hobekuntzak sartzen dira hondartzen kudeaketan, hauen ingurumen-portaera hobetzeko beren bisitariarentzat.

Urtero bezala, EMASen bandera bere egurrezko bankuan jarriko da Kontxako sarrera nagusian, gure hiriko hondartzetako ingurumenaren kudeaketa egiaztatua adierazten duen bandera hain zuzen.

Hiriko hiru hondartzek XIV. Ekohondartza Bandera Saria lortu dute, Ategrus eskainita.